

# **EUKARISTIA**

***KRISTOREN MISTERIOAN SARTZEA***



Kristau Heziketarako Oinarrizko Egitasmoa  
OINARRIZKOAK bilduma  
2. zkia.  
Bilbo, 1996.ko Maiatza

**Lagungarri hau Anton Basagoiti  
Geideak-eko Kontsiliarioak  
egin dau.**

## AURKIBIDEA

I. AZALPENA	4
1.- EUKARISTIA KRISTOREN MISTERIOAN SARTZEA	4
1.1.- Eukaristia Jaunagaz alkatzea da.	4
1.2.- Kristautasunaren kakoa.	5
2. BARRIZTATZE-BIDEAK EUKARISTIAN	10
2.1.- Alkatzea hobatzea.	10
2.2. Gutariko bakoitza hobatzea.	11
2.3. Liturjian	11
3.- LITURJI-IKASKETA	12
3.1.- Sarrerako erritoak	12
3.2.- Berbearen liturjia	13
3.3.- Eukaristi-liturjia	13
3.4.- Agurrerako erritoak	16
II.- BIZITZA-AZTERKETAREN INKESTA	19
III.- GEHIGARRIA	21
EMOTEAREN ETA ALKARBANATZEAREN MISTERIOA	21
BIBLIOGRAFIA	23

# EUKARISTIA

## *Kristoren misterioan sartzea*

### I. AZALPENA

Gutariko askok, Geideak-eko gazteok, betebeharrak ez dan zama lez, bizi dogu domeketako eukaristia. Honek min emoten deusku, jakin badakigulako ez litzatekela holan izan behar, baina gure barruan sentimentu hau pizten da: "eukaristia astuna egiten jata". Kristinautzat daukagu geure burua, baina domeketako mezak ez gaitu asetzen.

Halan da guztiz ere eukaristia ur biziaren iturria da, Elizaren bihotza eta, beraz, Geideak-ena, zurea. Saiatu zaitetz ondo ezagutzen

Eukaristia sarritan eta sakontasunez ospatzen badozu, testu honeguz gauzak zehaztu ahal izango dituzu, eta zure motibazioak indartu egingo dira.

(Gaiak irakurri baino lehen Bizitza-azterketaren Inkestako IKUSI aldia egitea gomendatzen dogu)

#### 1.- EUKARISTIA KRISTOREN MISTERIOAN SARTZEA

Eukaristia une garrantzitsu eta ezinbestekoa da kristinauaren bizitzan. Gure borroken, oinazeen, pozen eta itxaropenen jatorri, zentzu eta jo-mugaguz zerikusia dauka, Jesukristok eurekin zerikusia daukalako.

Eukaristia "kristau bizitza osoaren iturria, eta era berean gailurra, da" (LG 11)<sup>1</sup>; bere bitartez Jaungoikoaren Elizea etenbarik jaso eta hazten da. "Eukaristian Elizea Kristoren gorputz egiten da, horregaitik beragan gauzatzen da aldi berean Elizaren batasuna" (PO 5). Eukaristia kristau alkarte osoaren sustrai eta erroa da (cf PO 6). Lehenengo lekua hartzen dau kristinauaren bizitzan. Kristau gazte asko eta askoren praktikan ikusten dan hoztasun larria gertatzeko bere dinamismo garrantzitsuenak kolokan dagoz. Horregaitik eukaristiaren zentzu eta arrazoi zuzenak berreskuratu behar doguz.

##### 1.1.- Eukaristia Jaunaguz alkartzea da.

Eukaristia **sakramentua** da, Jesukristoguz alkartzeko une berezia. Jesus beti dago guguz, bidelagun dogu. Baina une batzuetan lotura hori sendotu egiten da, sakonagoa da. Betiko lagun bateguz alkarriketa mamitsua izaten dogunean lez. Hasierako apostoluei bardina pasatzen jaken. Beti Jesuseguz ebizan baina baeukezan alkarriketarako eta adiskidetasunerako une bereziak. Sakramentuak -topaketa- nire Jesusekiko hartuemonak sakontzen dau, hobeto ezagutzen laguntzen deust, nire bihotzeraino sartzen da eta bihotz barrizera eroaten nau, nire bizitza Jesusenaren antzeko egitera. Bere motibazio, sentimentu eta ideiekin, nire lagunak berak bilatzen ebazan lekuan bilatzera, erreinuaguz zintzo jokatzera berak lez, etab.

Erreferentzi taldea, kristau bizitzarako norbere egitasmoa, konpromezu pertsonal preferentea daukazuzala esan daikezu eta, beraz: zer **emoten deutso** sakramentuak kristau aukera eta balioez jantzitako bizitza bati? Funtsezko zerbait: **balio eta aukeren iturri dan Jesukristoguz, munduaren salbamenagaitik hil eta berbiztu zanaguz alkartzea. Eukaristian Jesuseguz bat egiten dogu.** Konpromezua, eginkizun bat baino -gauza asko egitea besteen alde- ikasleei beraguz egon eta barri ona iragarteko dei egin eutsen, Jesuseguz izandako topaketaren fruitu da, Jesuseguz egindako ituna da. Jesus barik ezin dogu ezer egin, norbere fedea dotrina hutsean geratzen da, ospakizuna erritualean, jarraipena fariseotarrek atsegin eben moral gaisoan.

Sakramentuen artean, **eukaristia da nagusiena**, besteen bihotza da bertan Jesusen bizitzak, lanak, eta pertsonak esangura osoa hartzen dabelako. Berbiztuaguz egiten dogun bazkaria da, eta berbiztua bera hartzen dogu gizateri salbatu, zoriontsu eta zuzen baten sakramentu lez. Jesus Biziak eukaristia darabil gugana hurbiltzeko.

---

<sup>1</sup> LG eta PO Batikano II. Kontzilioko dokumentu biren izenak dira. LG, "Lumen gentium" da (herrien argia) eta agiri garrantzitsuenetarikoa da. Elizaren nortasuna deskribatzen dau. PO, "Presbyterorum ordinis" da (abadeen ordena) eta abadeen ministeritza eta bizitza deskribatzen ditu.

## 1.2.- Kristautasunaren kakoa.

Jesusen bizitza osoa etenbako, heriotzarainoko, Jaungoikoaren erreinuaren eraketaren aldeko eskaintza izan zan. Gizonen eta emakumeen aldeko bere buruaren eskaintza izan zan eta Aitarentzako opari eta gurtzea. Komunino bikoitz honen ageriko seinalea **bazkari handia** zan.

Jesusek jan-edanak bere izatearen ezaugarri bihurtu ebazan. Sarritan jaten dau pekatariekin harrera eta adiskidetasunaren seinale lez, ikasleekin, jendearekin, Kanako eztaietan, Marta eta Mariaren etxean. Bazkariotan aurreratu eta izatez Jaungoikoaren Erreinuaren ezaugarri ziran parkamena, abegi ona, komuninoa eta adiskidetasuna egiten ebezan<sup>2</sup>. Gure Jaunari Jaungoikoaren Erreinu bazkari handi bategaz konparatzea gustatzen jakon, ez bakarrik janari ugari egoten zalako, guztiak bardin lez parte hartzen ebelako baino. Jesusen bazkariak keinu utopikoak ziran, barritasunez eta ilusioz betetakoak, ebanjelio-mezuaren haragitzea. **Salbamenaren irudi barria** eskaintzen eben **Jaungoikoaren irudi barria** eskaintzen ebelako: bere mahaira guztiak gonbidatzen dituanarena, ezelango bazterketa edo kanporaketa barik; eguzkia gaiztoentzat eta zintzoentzat atara eta euria zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen dauenarena (cf Mt 5,44-45).

Azken une ikaraga-rrira heldu baino lehen, Jesusek jokaera ikusga-rria izan eban, afari handi bat ospatu eban, **Pazko Afaria**, eta bertan bere bizitzaren esanahia erakutsi eban. Azkenen-go aldiz bere lagunekin alkartuta keinu baten batu eban ordurarte egindakoa bere zentzun sakonena emonez: banatu eta alkarbanatu guztien bizitzagaitik; bizitza isuri galdutako jendetza herri askea, Jaungoikoaren herria, izan eiten. Eta holan gogoratzea nahi izan eban: alkarbanatutako ogian eta guztiogaitik isuritako odolean. Eta bardina egiteko agindu euskun: ogia banatu eta alkarbanatu eta gu geu ere alkarbanatu, bere oroimen nahastatzaileak -arriskutsuak- "munduan izateko" modu hori piztu eian: heriotzerarteko emoitza eta eskeintza. Holan erragertuko jaku historian, herriaren bizitzaren aldeko eskaintza lez.

+

**Lehenengo kristinauek** aparteko esperientzia izan eben. Euren mesias hil eta, seguruenez zirrara handia jasango eben, ordura arte bizi izandakoa porrotzat eta adar jotzetzat hartuz, baina testamentu barriak zoritxarra gertatu eta berehalako lehen alkarbanatutako alaiak, ilusionatuak, itxaropentsuak kontatzen deuskuz (cf Eg. 2,46). Ez ziran oso maite eben hildako lagun bat goratzeko batzar tristeak: ez eben bere heriotz eguna, barikua, ospatzen, "hirugarren eguna", **berbizkunde eguna** baino. Beste zeozer zan. Hil aurretik ezagutu eben Jesus eukeen aurrez-aurre. Ez zan desagertu! Bera zan. Hori bai, desbardina, erabarritua, muga bako gorputzagaz, indartsua, egina, imaginatu eta aurrikusi ezina; Jesus berbiztua ez da barriro hilgo. Berak arraina, ogia, ardua ekartzeko esaten eutsen eta barriro jaten eban eurekin. Eta harrituta egozan, gertakizuna alaia, sakona, barria egiten jaken eta. "Zuzeneko" eukaristiak ziran Berbiztutako Jaunagaz.

*Jaunarengandik hartu neban nik, neure aldetik zuei eskualdatu deusuedan hau: Jesus Jaunak, saldu eben gauean, ogia hartu ebala eta, eta, eskerronezko otoitza egin ondoren, zatitu eta esan ebala: "Hau nire gorputza da, zuentzat emoten dana. Egizue hau nire orioigarri". Bardin egin eban kopagaz afal ondoan, esanez: "Kopa hau itun barria da, Jainkoak nire odolaz ezarria; egizue hau, edaten dozuen bakoitzean, nire orioigarri". (1Kor. 11,23-25)*

Baina bizikizun berezian ostean, testamentu barrian ikusten dogu zelan iragarten deuten Jesusek bere joatea apostoluei. Baina ez ditu bakarrik itziko, bere espiritua -Espiritua- bialtzen deutse Mendekoste egunean: "Hobe da zuentzat ni joatea; izan ere, joaten ez banaz, ez jatzue etorriko Laguntzailea; joaten banaz, ordea, bialdu egingo deusuet" (Jn 16,7).

*Egunero batu ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen eben, otorduak alkarregaz pozik eta bihotz xaloz eginez.*

*(Eg. 2,46)*

Gaurko egunerarte, eta **Espiritu Santuaren** indarrez, eukaristia ospatzen dogun bakoitzean Jesusek berak zatitzen dau bizitzaren ogia eta albamenaren edaria banatu. **Gaur domekan** eukaristia ospatzen danean, aste osoan gure artean egon dan Jauna ezagutu daiegegu ogia zatitzerakoan: "Orduan begiak zabaldu jakezan eta ezagutu eben" (Lk 24,31).

Jesus **bene-benetan** eukaristian **dago**. Jaun Berbiztuak eukaristiaren bidez adierazoten deusku gugaz batera dagoala, gure eguneroko laguna dogula.

## 1.3.- Eukaristiaren zentrotasuna.

<sup>2</sup> Jesus, munduak hondakintzat eukazanen bila etorri zan. Laugarren eukaristi-plegariak esaten dauan lez:

"Eta esaneko ez izateagaitik zure adiskidetasuna galdu ebanean, ez zenduan heriotzaren eskuetan itzi: errukituta, guztiei joan zintxakezan, bilatzen zaituanak aurkitu zaitzan".

Kreazinoa gauza harrigarria da denporan eta espazioan. Gaurregungo kalkulo astronomikoen arabera, ezagutzen dogun unibertsoak  $15 \times 10^9$  urte inguru ditu, eta lurra  $4.700 \times 10^6$  urtetan esistitzen da. Ezagutzen ez diran galaxia eta planeta ugari dagoz eta ez dakigu zer gertatu daitekeen etorkizunean, zenbat aurkikuntza eta ezaguera barri izango doguzan. Baita lurraz kanpoko zibilizazioak ere, norik jakin. Espazioaren eta denporaren puntu txiki baten galduta, kristau fedeak, batzuentzat aipatu ezina dan eta beste batzuentzat lelokeria baino ez dan baieztapena egiteko ausardia dauka: **Jesus da guztiaren jatorria, zentrua, kakoa eta helmuga.**

Ezelango ezagupen teknologiko bako pertsona bat, ezjakin eta zoritxar aldi baten lurra gobernatu daben inperioetako bateko kanpokaldeko auzo galdu baten jaiotakoa. Gizon txiki, beltzaran, sudur haundidun batek, judutar arrunt batek, salbamera dakarsku, **salbamen bakarra**, berari pertsonalki lotutakoa. Jesus da bideA, egiA eta biziA (cf Jn. 14,6). Hau konturatu barik egiten dogun baieztapena da baina, era berean, pisuduna. Benetan hau sinisten dogunean gure bizitzak astindu ederra hartzen dau, bere itxaropen, balio, ideia, jarreretan... eraldatzen da.

Bene-benetan, judutar honen bizitza osoa salbatzailea izan zan. Une oro uste osoa izan eban zeruko bere Aitarengan eta Ebanjelioaren iguruan batutako giza-anaitasuna sortzeko bizi izan zan. Besteen aldeko bere eskaintza-bizitzak pazkoan bere gailurra jadetsi eta bere sustraiak aurkitu ebazan. Gugaitik, azkenerarte, txarra on bihurtuz, tristura alaitasun, mingostasuna itxaropen, gorrotoa parkamen, heriotza bizitza. Aitak berbiztu egin eban maitasuna heriotzea baino indartsuagoa dala erakutsiz. Jesus bizirik dago eta bere presentzia bizitza da. Batzuk "Biziduna" deitzen deutsoe. Lau ebanjelioek zehaztasun osoz deskribatzen dabe pazkoa. Izan ere, pazkoa, Jesusen bizitzaz idatziz agertu zan, lehenengo gauza izan zan. Holan bada, **Jesus salbamenaren historiaren zentrua da eta pazkoa bere bizitzaren zentrua eta kakoa.**

Horrexegaitik, mezeak, gaur ere, gure kristau bizitzako **kakoa**, zentrua izan behar dau. Horregaitik atsegina izan behar

*Egun haretan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herriska batera joazan, Jerusalendik hamaika kilometrora. Gertakari guztietaz egin eben berba alkarregaz. Eta, berbetan eta eztabaidan ziharduela, Jesus bera ondoratu jaken eta eurekin joan zan. Baina ikasleek begiak itsu ebezan eta ez eben ezagutu. Jesusek esan eutsen: "Zeri buruz zoaze bidean alkarregaz hizketan?". Hareek gelditu egin ziran, aurpegia ilun, eta batek, Kleofas zeritzanak, holan erantzun eutson: "Zeu izango zara egun honeetan Jerusalemen gertatu dana jakin ez dauan kanportar bakarra!". "Zer gertatu da, bada?" -esan eutsen harek. Harek erantzun eutsoen: "Jesus Nazaretarrarena; profeta haundia zan hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; baina gure abadeburu eta agintariek heriotzara kondenatu dabe eta kurutzean hil. Guk uste genduan berak askatuko ebala Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dala. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik itzi gaituela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez ei dabe gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dala esan deutesen aingeru batzuk agertu jakezela esanez etorri jakuz. Guretako batzuk ere izan dira hilobian eta emakumeek esan bezela aurkitu dabe guztia; baina bera ez dabe ikusi.*

*Orduan Jesusek esan eutsen: "Bai buru gitxikoak zareela, bai motelak profetek esana sinisteko! Ez ete eban Mesiasak hori guztia sufritu behar bere aintzara ailegatzeko?". Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz inoen guztia azaldu eutsen. Joazan herriskara hurbildu ziranean, aurrera jarraitzeko keinua egin eban Jesusek. Baina hareek arren eta arren eskatu eutsoen: "Geratu zaitez gugaz, berandu da-ta eta iluna gainean dogu". Eta herrian sartu zan eurekin gelditzeko.*

*Ondoren, alkarregaz mahaian jarri ziran, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazinoa esan, zatitu eta emon egin eutsen. Orduan, begiak zabaldu jakezan eta ezagutu egin eben, baina Jesus desagertu egin jaken begi aurretik. Hareek alkarri esan eutsoen: "Ez al geunkan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz berba egin deuskunean?"*

*Berehala jaiki eta Jerusalemenera itzuli ziran; eta Hamaikak eta honeen lagunak batuta aurkitu ebezan, holan inoela: "Egia da! Biztu da Jauna eta Simoni agertu jako". Bi ikasleek bidean gertatutakoa eta zelan ogia zatitzean ezagutu eben kontatu eutsen.*

*(Lk. 24,13-35)*

jaku bertan parte hartzea, beharizana sentitu behar dogu. Jesusegaz alkatzea ezinbestekoa dogulako, bere uztarri leuna hartzeko (Mt. 11,28-30). Mezatan egoteak aspertzen banau oraindik ez dot Jesus aurkitu. Bere balio eta intuizioez (formulez) jabetuko naz, eta ez da gitxi, baina ez dot bera, pertsonalki, aurkitu. Oraindik buru gitxikoa eta motela naz (cf Lk. 24,25).

Jakina, eukaristian parte hartzeak ez dau agortzen nire kristau bizitza. Ikusi egizue zer esaten eban, IV. menderako, San Juan Krisostomok<sup>3</sup>: Kristoren gorputza gurtu gura dozu? Ez egizu gutxietsi bilutsik dagoanean. Ez dozu gurtuko hemen elizan setazko jantziekin hor kanpoan hotzez eta jantzi barik sufritzen izten dozun bitartean. 'Hau nire gorputza da' esan dauana,

<sup>3</sup>Mateoren Ebanjelioari buruzko Homilia liburuan.

eta esaterakoan egin dauana, 'gose nintzan eta ez zeusten jatekorik emon' eta 'Txiki horreetariko bakoitzari laguntza ukatu deusazuenan, niri ukatu deustazue' esan dauana da. Hemen Kristoren gorputzak ez dau jantzirik behar, arima garbiak baino; han prestutasun ugari behar dau... Zer irabaziko genduke Kristoren mahaia urrezko edalontziez beteta egoteaz, bera gosez hiltan dan bitartean? Gose danari lagundu eta gero apainduko dozu altarea". Eukaristian parte hartzeak pobrea babestea zergaitik dan garrantzitsua, zein dan konpromezu eraldatzailearen sustraia erakusten deusku.

Konturatu zaree lehengo eta oraingo kristau konprometitu eta solidarioenek: San Frantzizkok, Santa Teresak, Romero monsinoreak, Salvadorren hil ebezan jesuitek, Kalkutako Teresak eta beste askok eta askok eukaristia behar izan ebela eta behar dabela bizitzeko arnasa behar dogun lez?

#### 1.4.- Eukaristia elizaren irakaspen nagusia da.

Eukaristia Salbamenaren Misterioaren laburpena eta gaurkotzea da. Gauza guztiak Kristorengan batzeko eta adiskidetzeko Jaungoikoaren aintzinako egitasmoa (cf Ef 1,10; Kol 1,16) eukaristiaren ospakizun bakoitzean gauzatzen da modu egoki eta "batuan".

Eukaristia **keinu gomutagarria** da, Jesukristoren, bere bizitzaren eta berbearen oroitzapena. Ebanjelioak idatzi baino hamarkada batzuk lehenago eukaristia ospatzen zan. Bertan, ezagutu ebenek, Jesusen historiak kontatzen ebezan. Berari gertatutakoak eta berak esandakoak gogoratzen ebezan, ebanjelio biziak ziran. Lekuko hareek euren esperientziak idatzi egin ebezan, ebanjelioak sortuz. Gaur egun eukaristiak, irakurgaien eta eukaristi-plegariaren bidez, Jesukristoren bizitza eta pazkoak gailurrera eroandako Jaungoikoaren gertakizun salbatzaile nagusiak gogoratzen deuskuz.

Keinu eragilea da, **orain diharduena**, maitasuna sortuz, batasunerako etenbako deia eginez, kristau alkarte berbiztuaren inguruan gehituz eta betiereko bizitzan itxaropena janarituz. Eraginkorra da, fedez ospatu eta kristau alkarte munduko gertakizunetan murgiltzen dan lekuetan, bizitza sortzen daualako. Ogia eta ardoa **eraldatzen** ditu eta ospatzaileak lehen mailako kristau egiten ditu, honek aldaketa horretarako bihotzak zabaltzen badabez. Esperientziak dinoanez, elizkizunetan parte hartzen ez dauan kristin角度, kristin角度 izateari izten deutso eta apurka-apurka ekimena baztertzen dau.

**Etorkizunaz**, Jaungoikoaren erreinuaz **betetako** keinua da; bertan ez da egongo "negar hotsik ez garrasirik" (Is 65,19), Jesukristok samina, pekatua eta heriotza garaitu eta gero, gizateri osoa batuko da, baztarketa barik, sekula amaituko ez dan bazkari haundian, alaitasunez betetako eta bildur bako esparruan, Jesus buru eta zerbitzari izan eta betirako eskainiko dalarik.

Lehena, oraina eta etorkizuna. Historiaren jatorria, zentzua eta helmuga eukaristian aurkitzen dira. Horregaitik esaten dau SC<sup>4</sup>33-ak eukaristia Elizaren irakaspen nagusia dala. Eta horregaitik mantendu behar da zelabaiteko zorrotasuna bere ospakizun-eraketan ere. Gaur egungo antolaketa ohiturazkoa bada ere, eukaristiak bere jatorrian dagoan salbamen-ekintzari: Jesukristo gure jaunaren pazkoa, zintzo jarraitu behar deutso. Elizak ezin dau aldatu une esanguratsu hori. Bere izatearen aurka joango litzateke egingo baleu.

Gainera honek **dimentsioak bardintzera** garoaz. Iraganak, gertatutako salbamenak ezagutzera, kontenplaziora eta eskerronera eroan behar gaitu. Horregaitik esan daikegu eukaristian GAGOZALA, jasotzen dogula, Jesusek gugaitik egiten dauana dalako. Egin bako etorkizunak borrokara, eraldaketara, ekintzara gonbidatzen gaitu<sup>5</sup>. Holan eukaristian PARTE HARTZEN DOGU, Jesusen guztion aldeko beharra amaitzen joan gaitezana. Kristin角度 batentzat DOHATASUNA ERAGINKORTASUNAREN oinarria da, gauzatutako salbamenak ezagutzeak borrokara bultzatu behar gaitu munduko bazter guztietara heldu daiten. Eukaristian ORAIN BAI hori ezagutzen dogu eta ORAINDIK EZ horretarako indarrak hartzen doguz.

#### 1.5.- Eukaristian parte hartzen dabenak.

Eukaristian lotzen dira salbamenaren historiaren protagonista guztiak:

1. **Jesukristo**, ezinbestez agertzen da erritoagaitik, berbengaitik, bere Espirituagaitik, gure artean egongo dala agindu deuskulako. Nahiz eta erdi lo egon edo gogo barik parte hartu, nahiz eta guretzat bertan parte hartzea harrokeria hutsa izan, nahiz eta alkarte "alkarte-modukoa" izan, nahiz eta faszistek eta diktadoreek haunditasuna eta zintzotasuna itxuratzen erabili, eta nahiz eta Elizak hori onartu, Jesus bertan eskaintzen jaku. Belenen jaio zanean gure eskuetan jarri zan lez, orain ere geugan jartzen dau uste osoa. Jende ugari gan jan eban lurreko Jesusek eta ez ziran asko izan bere hurbiltasuna aprobetxatu eta aldatu eta bihotz barritu ziranak. Gitxik ikusi eben bazkari hareetan salbatzailea. Guk altxor bat daroagu buztinezko ontzietan (2 Kor 4,7). Ontziaren pobretasunak ez deigula batzen dauan altxorraren destaina eragin.

<sup>4</sup> SC Sacrosanctum Concilium-en, liturgiari buruzko Batikano II. Kontzilioaren dokumentua, lehen hizkiak dira.

<sup>5</sup> San Paulok lez: "gorputzean jasaten dodazan atsekabeak Kristoren atsekabeei eransten deusdaz" (Kol 1,24)

2. **Eliza**, ospatzeko batzen dan alkartean agertzen da bere osotasunean<sup>6</sup>. Berari esker, berak deituta batzen da. Era askotako giza-taldea da eta ez "goi mailako" pertsonen osotutakoa. Ez dira akasbakoak, bihotz barritzea gura daben zelan-halangoak baino (cf 1 Kor 12,12; Gal 3,28; Mt 13,47-50; 20,1-16). Desbidezkoa eta errebesa da baina beronen bitartez mantentzen dogu bizirik Jesusen gomuta<sup>7</sup>, iturburuko ur garbia emoten deuskun mendiko iturriaren odi ugertuaren antzera. Ebanjelioa sekula irakurriko ez dauan jende askok kristinauen bizitzatik bakarrik ezagutuko dau Jesus. Bihotz zabala daukeen kristinauak eta alkarte biziak aurkitzen badabez Jaungoikoa ezagutuko dabe. Baina bekoki iluneko jendea, alkarte hotzak eta harrokeriaz betetakoak, parkatzen ez dakien, zuzentasunaren alde jokatzeko ez daben gizon-emakumeak ikusten badabez, Jesus ez dabe gustoko izango. Elizak Jesukristo erakutsi eta gorde, agertu eta ezkutatu egiten dau. Alkarte horretakoa izatea bateotik eta fedetik dator.

Alkarte osoak ospatzen dau. Eta bera dan moduan ospatzen dau. Eukaristia **alkartearen espilua** da. Esaidazu zelan ospatzen dozun eta zure kristau fedea zelan bizi dozun esango deusut. Pentsatu zelakoa izango zan hasierako kristinauen ospakizuna: bizia, beroa, sakona, galdetzailea, konpromezu-eragilea. Baina alkarte hori holakoa zan aste osoan. Ospakizuna hotza dala pentsatzen dogunean gure alkarteari begiratu behar deusagu, bera ere hoztuta egongo da. Alaitasunik erakusten ez badau, ez dau biziko salbamenaren esperientzia. Astuna baderitxogu, gure alkarte ere astuna dalako izango da. Zelan eskatuko dogu eukaristiak Jesusen Kurutzea iragarri eta osaptzea gure bizitzetan nekaldia alboratzen badogu, Jaungoikoaren Erreinuaren alde saiatzen ez bagara?

Kristau alkarte desberdina da, karisma ugari ditu. Gaur egun honako honeek daukaguz:

2.1. Alkarte. Ospakizunaren muina da. "Batzar ospatzailea" edo "Kristoren Gorputza" ere deitzen dogu. Aste osoan sakabanatuta, bere bihotz eta buruagaz, Jesus berbiztuagaz, ospatzeko batzen da.

2.2. Abadea: ospakizun-burua. Gugaitik eskaintzen dan Kristoren eta Aitari Kristogaitik eskeintzen jakon Elizaren orde dago. Alkarteko partaide, beste maila baten agertzen da keinuaren benetakotasuna ziurtatu behar daualako. Han Jesukristoren Eliza batzen dala baieztatzen dau, asmakizun-usteak baztertuz. Eukaristia Jaungoikoaren dohaia dala gogoratzen dau eta ez kristinauek euren buruei, eurek gura daben moduan, eskeini deikieen elizkizun bat.

2.3. **Mundua** bere arazoekin. Jesus "zuengaitik eta guztiengaitik" eskaintzen da. Eukaristiak Kristoren gorputzaren zati bihurtzen gaitu eta, beraz, gizateri anaikorrako baten artisa.

Dana dala, eukaristiaren aberastasun hau **pobretuta** agertzen da. Jesus ez da erruduna. Jesusek ez dau inoz hutsik egiten. Baina alkarteak huts egiten dau, kristinauok huts egiten dogu. Gure parrokiak ez dira benetako alkarteak, ez dago komunikaziorik ezta alkarren arteko ezagutzarik. Abadeak ia dana egiten dau ospakizunean eta jendea, antzokien itxura daukeen elizetan, bertan gertatzen danaren ikuslea baino ez da. Ez gagoz munduaren eraldaketagaz konprometituta. Ez dogu Biblia ezagutzen eta, horregaitik, Jesusen bizitza bera ere, bere ilusioak eta asmoak, ezezagunak egiten jakuz. Otoitz gitxi egiten dogu eta egiten doguna txarto. Eta alkarte kritikatzeko dogun lez geure buruak ere, gure eguneroko bizitza, epela, itxaropen bakoa, kontserbadorea kritikatu behar doguz.

## 1.6.- Eukaristia eta elizaren bizitza.

Eukaristi-banketeak guztion batasuna, komunioa, suposatzen dau. Horregaitik eukaristiak Eliza egiten dau. Mahai beretik jateak alkarte sortzen dau. Kristorengandik jateak kristinau egiten gaitu. Eukaristi-banketetik sortzen dan alkarte Eliza da, Kristoren gorputza.

Eukaristian ogia eta ardoa **eraldutzen** dira. Pertsonak ere aldatzen dira Espirituarengan gorputz bakarra osatzeko. Jendeak ez dau joan behar mezatar pasibotasunez, bera Jaunaren gorputz eta odol izatera deitua dago eta horretarako bihotz barritzeko gogoia izan behar dau. "Hau nire gorputza da zuentzat emondakoa" Jesusen berbok alkarteari ere bajagokoz eta berarengan eragina euki behar dabe: gure buru dan, Kristoren gorputzezko eta odolezko egiten gaitu. Oso ondo adierazo eban San Agustinek: "Kristoren gorputza zer dan ulertu gura badozue entzun Apostoluari; ikusi fededunei esaten deusena: zuek Kristoren gorputz zaree, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal (1 Kor 12,27). Beraz, zuek Kristoren gorputza eta gorputz horren atala bazaree, mahai gainean dagoana zeuen sinboloa da, eta jasotzen dozuena zeuen misterioa bera da". Eta hau ere esaten dau: "izan zaitezte jasotzen dozuena; eta jaso egizue zareena"<sup>8</sup>.

Hau holan danez, Elizak bere burua eskaini behar dau gizon-emakume guztien alde eta Aitaren eskuetan. Izan ere, berak

<sup>6</sup>R. GANTOY-k batzarra "Jaungoikoaren Berbea entzun, Eliza osoagaz batera otoitz egin, eta eukaristi-eskaintza ospatzeko asmoz, etorri dan eta etorri datorren Jaunaren itzuleraren zain, deitua izan dan eta orain batzen dan eliz alkarte" lez definitzen dau.

<sup>7</sup>Hobeto esanda, Jesusek Berak erabilten dau gure artean jarraitzeko, beronen bidez ulertu eta sentitu ahal dagigun.

<sup>8</sup>AGUSTIN, 272 sermoia (PL 38,1247). Eta San Agustin gaur egungo Tunisian bizi izan zan 354.tik 430.era.



"Kristoren nekaldiari falta jakona ordezkutzen dau" (Kol 2,24), mundu bateratu bat egiteko. Eta "Jaunaren eskaintza ez da ospatzen gure agintzariak eta eskaintzak nekaldiari (Kristorena) erantzuten ez badeutso"<sup>9</sup>. Elizaren bizitza eta ekintza eukaristian batzen dira eta beragaitik jasotzen dira Aitarengana Kristogaitik dohain eta kulto lez eta berarengandik itzultzen dira Kristogaitik, Elizak munduari egindako dohain lez.

Horregaitik, Von Allmenek esaten dauan lez<sup>10</sup>,

*"Aztertu bei, bada, nork bere burua, ogitik jan eta kopatik edan aurretik; Jaunaren gorputza dala kontuan izan barik jan-edaten dabenak, bere gaitzespina jaten eta edaten dau-ta. Horrexegaitik dago zuen artean hainbeste ahul eta gaixo, eta franko hil ere egiten da. Geure buruak arretaz aztertuko bagenduz, Jaunak ez gindukez gaitzetsiko. Dana dala, Jaunak, zigortzean, zentzun arazoten gaitu, munduagaz batera gaitzetsiak gertatu ez gaitez.*

*Beraz, senideok, zeuen alkar-te-otorduak egiteko batzen zareenean, itxaron alkarri. Baten bat gose bada, jan dagiala bere etxean, zuen batzarreak gaitzesgarri gertatu ez daitez. Gainerako gauzak, joango naizenean konponduko ditut".*

*"Afaria ez da benetakoa bertara misiolariak itzultzen ez badira eta bertatik abiatzen ez badira. Ez dago benetako eukaristiarik parte hartze barik, arriskuz betetako eta eskainitako bizitza barik, alkar-tea jasotzeko borondate barik"*

Guzti hau dala-ta irakurri 1 Kor 11,28-34.

*"Afariak Elizak gaisotu egiten ditu autortutako eta alkarbanatutako maitasunaren lekua ez danean, fededunak mundura bialtzen ez dituanean Ebanjelioaren lekuko izan daitez, mundutik aparte batzen ez dituanean Kristok ikusi, egin, sufritu eta lortutako guztiaren hausnarketa egiten lagundu deien; bera euren konpromezuaren eragile nagusia ez danean"*

<sup>9</sup>ZIPRIANO, 63,9 Ep. (PL 4,392)

<sup>10</sup>FERMET, A.-k aipatua, La Eucaristía, ST, Santander 1980, 94. Orr.

## 2. BARRIZTATZE-BIDEAK EUKARISTIAN

Eukaristia alkarte zintzo baten benetakotasunez, alaitasunez eta sakontasunez ospatzeko, kristau bizitza osoa benetakotasunez, alaitasunez eta sakontasunez bizi behar da alkarte zintzo baten. Eukaristia arlo guztietan bete-betea gertatu dakigun gure esku dagoan guztia hobatu behar dogu. Maila desberdinetan: alkartearen hobatzea, gutariko bakoitza hobatzea eta liturgian.

### 2.1.- Alkartera hobatzea.

Eukaristia ospatzeko eta alkarteraren bizimoduaren espilua bada, hobeto ospatzeko alkartera hobea behar dogu. Eta ahalegin hau sakramentu-aurrekoa, eukaristia-aurrekoa da, batez ere. Monizinoak hobatzea, abestiak barrizatzea, irakurleak ipintea... guzti hori ederto dago, baina benetan lortu behar doguna zera da: gure alkartera hitzez eta egitez Jesusen jarraitzailea izan daitela. Gure alkarterak komunitarioagoa, erantzunkideagoa, ebanjelizatzaileagoa izan behar dau.

Ekimen hau luzea da eta adore handia eskatzen dau, eroapen ezak eta etsipenak ez dauke lekurik. Ez ahaztu hogei (20!) mende daroaguzala horretan. Orain gure garaia lekuko bere eskuan dauka. Ea zer egiteko gai garan!

**2.1.1. Prestaketa ona behar dogu eukaristiara hurreratzeko.** Paulo VI.aren *Evangelii nuntiandi* ohar apostolikoak ebanjelizazio orok sakramentuetara eroan behar gaituela esaten dau (cf EN 47). Horretarako aurre-ibilbide bat behar da "gauza ziuerra dalako sakramentuen eraginkortasuna, sakramentu-katekesiaren laguntza sendo barik emongo balira, indargabetuko litzatekela" (EN 47). Hau da, sakramentuak eraginkorrak izan daitezkan ebanjelizazio eta katekesi lan sendoaz prestatu behar dira<sup>11</sup>. "Ebanjelizazioaren helburua fedean hezitzea bada, kristinauak sakramentuak fedearen benetako sakramentu lez bizi dagizan -eta ez geldotasunez eta epeltasunez jaso-" (EN 47), gure alkartereak erakusten daben eukaristi makaltasunak ezinbestekoa dan aurre-ebanjelizazioa falta dala erakusten deusku. Galdetu zeuen buruei: zelakoa izan da zuen taldearen eta zuen ebanjelizazioa eta katekesia?

**2.1.2. Eukaristiak eta beste alkartera ekintzak berrindatu egin behar dira.** Gure parrokiak eukaristiaz josita dagoz. Hainbeste eukaristia -ugariegi- ez dator bat alkartera bizitzaren sendotasunagaz -makalegia-. Horrexegaitik, ospatzen diran eukaristiak oso pobreak, oso sistrinak dira. Eukaristia asko dago eta talde gitxi, konpromezu gitxi, otoitz gitxi, Bibliaren ezagupen gitxi, ebanjelio-erradikalitasunaren bufada gitxi. Ez da harriztekoa, neurri baten, jendeak kristinau izatea mezatarra joatea dala pentsatzea eta beste ikuspegi ez jabetzea.

**2.1.3. Ahalegin ugari egiten da benetakotasuna eta ospakizunen berotasuna berreskuratzeko abestiak, monizinoak eta homiliak orraztuz, baina benetan ez dira konponbide bakarrak.** Nahiz eta elizkizunak ezin hobeto barriztatu, ospakizunen 1/4 bat baino ez genduke hobatu. Beste 3/4-ak ospakizun aurretik eta ostetik hobatu behar dira. Eta hau ez da egun batetik bestera egiten.

Laburbilduz, Eliza hobatzeko eukaristiak, eta beste ospakizun guztiak hobatu behar dira, baina hau ezinezkoa izango da kristau alkartera hobatzen ez badogu (bere ahalmen ebanjelizatzailean, munduan erreinua zerbitzeko eginkizunean, alkartera bizitzan eta Jaungoikoaren Berbearen zerbitzuan). Ondo ospatutako eukaristiek eliz-hobakuntza dakarre, BAINA BAKAR BAT, bera bakarrik nahikoa ez dana. Aldi berean beste guztia hobatu behar dogu. Prest zagoz ahal dozuna egiteko hori gertatu daiten?

**Baina ezin dogu itxaron alkartera ezin hobea izan arte gogoz ospatzen hasteko.** Eta bestela, gogoratu dagigun, gure eukaristiaren iturburua dan Azken Afaria "zalapartatsua" izan zala. Jesus bera zan buru. Apostoluek eztabaida larria piztu eben ea haundiena zein izango ete zan argitzeko (Lk. 22,24), ordu batzuk barru ahaztu ebezan biraoak jaurti ebezan (Mk. 14,29-31) eta euretako batek Jauna saldu eban txanpon batzuen truke (Jn. 13,21-30). Egun haretan eukaristia ikasleen koldarkeriaz, bildurraz eta makaltasunaz inguratuta hasi zala gogoratuko deuskuen gauzak gertatu ziran. Beraz, ez jaku ezer falta dana ezin hobea izan daiten eta gogoz parte hartzen hasi gaitzan. Eliza garbi eta orban bakorantz goaz eta hori ez da gauzatuko behin betiko Erreinerarte. Eta bitartean, eten barik jaso eta garbitu behar dogu. Elizak zugaitik egingo dauanaz galdetu barik, galdetu zer egingo dozun zuk Elizagaitik. Eukaristia hobatzeko mundua hobatzeko daukazun jarrera euki: ilusioa, ekimena, parte hartzeko gogoia, zelabaiteko eskaintza (ni neu, nire denporea, nire nolakotasunak Jaungoikoari eskaini

<sup>11</sup>Gaur egun eukaristiako partaide izateko bideak, lehen jaunartzeak, eukaristi-ospakizunaren esanahia ezkutatu egiten dau. Salbuespenak salbuespen, ez da ziurtatzen ezelango ebanjelizaziorik ezta benetako kristau sarrerarik. Meza umeen jolasa dala sinistu arazoten dau, bertan parte hartzeko heldutasunik eta konpromezu eraldatzailek ez dala eskatzen ikusi arazoz. Eukaristian parte hartzeak norbere bizitzan zerikusi gitxi daukala emoten dau, zuzen jokatzeko "ospatzeak dakarzan arriskuez" berba egin ordez, sakramentu bat benetan ospatzeak suposatzen dauan konpromezuagaitik. Eukaristia merke saltzen da. Guk geuk ere errespetua galtzen dogu. Elizak bere balioan hainbeste sinisten badau, ez litzateke egokiagoa eta serioagoa izan behar bertara sartzeko bidea?

guztien alde), otoiiza eta uste osoa Jaungoikoarengan.

## 2.2. Gutariko bakoitza hobatzea.

Alkartea honakoa edo holakoa izango da, baina zu zeu zara zure ekintzen erantzule nagusia eta azkena. Domeketako eukaristian parte hartzea edo ez hartzea zure esku dago, Jaunaren jarraitzaile izatearen erantzunkizuna zeuri bakarrik jagotzu eta. Ez ukatu zeure ardurea. Ez esan eukaristia aspergarria dala edo pobrea edo konpromezu gitxi eskatzen dauala, edo ez dagoala alkarte izena emon dakikeon talderik, zeure burua ere gogortasun horrekin epaitzeko prest ez bazagoz behintzat.

Fedez parte hartu behar dozu ospakizunean zuk zeuk gura dozun neurrian jasoko dozu-ta. Eukaristiak ezer gitxi emongo deusula uste badozu ez dozu asko jasoko. Sakonean, zenbat eta gehiago ipini eukaristian orduan eta gehiago aldatuko gara bertan, Kristoren gorputz eta odolean. Askok ikutzen eben Jesus baina gaiso bakar bat osatu zan (Mt. 20,20-22) berak bakarrik izan ebalako fedea. Beragana zabaltzen garan neurrian jasoko dogu Jesus.

Pertsonalki, eukaristia sakontasunez bizitzeko PRESTATU BEHAR IZANGO GENDUKE ondorengo honeek hobatuz edo berreskuratzen saiatuz:

**2.2.1. Salbamenaren esperientzia: "Jesus nire salbatzailea da" bihotzez esatea.** Kristau bizitza osoaren jai, ospakizun kutsua berreskuratu behar da, eta honek graziaren eta salbamenaren esperientzia bizitzea eskatzen dau. Horretarako otoiiza eta errealtatearen fedezko irakurketa behar doguz.

**2.2.2. Norbere otoiizean.** Eukaristia otoiiza da. Elizaren otoiiz nagusia da. Irakurri testuak eta ikusiko dozue. Baina, bertara joaten garanok, guk geuk, bakarka otoiiz egiten ez badogu, izango ete dogu indarririk edo gogorik alkarteagaz batera otoiiz egiteko? Jokoz kanpo geratzen gara partidura aurretik berotze-ariketak egin barik joan garalako. Eta noizbait hori egin dauanak jakin badaki ez dala posible. Guk geuk otoiiz egiten ez badogu ez jaku erraza egingo eukaristiara sartzeko pausu hori.

**2.2.3. Hots egiten eta ospatzen diran testuak ezagutzean.** San Jeronimok esaten eban Biblia ezagutzen ez dabenak ezin dituala sakramentuak ulertu. Domekako mezetako irakurgetan guran izan behar daben oihartzuna benetako indarra lortzeko. Hau da, guk liburu hareek alde aurretik ezagutzen badoguz. Saiatu zaitze domekako irakurgetan aurretik ezagutzen. Gauzak asko aldatzen dira.

**2.2.4. Eukaristi plegaria ezagutuz.** Salbamenaren historia ezagutzearen antzekoa da, guztiaren mamia.

**2.2.5. Gugaz batera ospatzen dabenei begi onez begiratzea.** Eta ez dagigula geure burua besteen gainetik jarri talde baten gagoz eta. Zenbat eta gehiago jakin eta konprometituago egon, orduan eta apalago eta zerbitzariago izan behar dogu.

**2.2.6. Parte hartuz.** Ez geratu joan barik. 304. urteko otsailaren 12an kristinau batek, bere etxean inperioko agindu baten aurka domeketako batzarra ospatzeagaitik Kartagoko prokonsulari erantzun behar izan eutson galdeketa baten, hau esaten eutson: "hori barik, ezin izango gintzatekez bizi". Eta horregaitik hil eben. Gaur ere ezin gara kristinau izan domekea ospatu barik. Zapatu gaua arerio haundia da kristau domekearentzat. Berandu (edo hobeto esanda goizean) oheratzeak, nekatuta eta trago batzuekin (94.ko kanpaina ahaztuta) asko mugatzen dau domekako goiza. Halere, egun hori ez da bakarrik atsedean hartzeko edo mezatara joateko, asteko gorabeherek galerazoten daben Jaungoikoarekiko hartuemonan lantzeko egun osoa baino. Hartuemon hori zaintzen ez bada, beste edozein hartuemonagaz jasotzen dan lez, galdu egiten da. Domekearen zentzua eta bizikizuna birplanteatu beharko doguz.

**2.2.7. Gure bizitzako oinarrizko jarrera.** Eukaristia nire bizitzako eskaintza pertsonalaren, besteen alde eta Jaungoikoaren esanetara jotzeko jarrerari lotuta dago. Jarrera hau nigan nagusitzen ez bada, ezin da eukaristia ulertu, bere burua baino ikusten ez dauan batek ezin daualako ezer ikusi eukaristian.

## 2.3. Liturjian

**2.3.1.** Eukaristia batzuk beste batzuk baino hobeto prestatuta dagoz. Ahal danik eta ondoen prestatu behar dira. Parte hartu egizue, irakurri, kantu barriak ikasi. Eskaini egizue zeuen burua talde lez ospakizun bat prestatzeko.

**2.3.2.** Alkartea eukaristiaren inguruan osotzen dan lez, parrokiaren jarrera hau hartu beharko litzateke: **alkarte bat, eukaristia bat.** Esate baterako, parrokia baten meza bi dagoz domekan, eta bakoitzean eliza erdizka betetzen bada, hobe da danok batera meza bakar bat ospatzea. Eta abade bat baino gehiago badago, danak batera emon dagiela mezea. Hau da, ez litzateke abadeen kopuruaren arabera ospatuko alkartearen batasunaren arabera baino.

**2.3.3.** Ospakizunaren haunditasuna eta giroaren berotasuna lotu behar doguz. Ez da edozelango ekintza bat. Normalean ez dogu txanpaina plasztikozko basoetan hartzen. Gure jaiek beti dauke nolabaiteko ospea, horrek giza sakontasuna emoten deusolako ospatzen dogunari. Horrexegaitik, ahalegintxo bat egin behar dogu minutu batzuk lehenago ailegatzeko.

**2.3.4.** Apurka-apurka eta irakaspen lez, ospakizunak dituan une desberdinak argi itzi behar dira.

**2.3.5.** Urteko **liturgialdiak** aprobetxatu behar doguz eukaristiei kolore desberdinak emoteko. Liturgialdi bakoitzeko berezitasunetik hobeto kokatzen eta egokiago parte hartzen lagunduko deusku. Horretarako elementu desberdinak erabili daitezke: abestiak, kartelak, era askotako adierazgarriak, etab; dana dala, ospakizuna ez dagigula saltoki edo zirko bihurtu.

**2.3.6.** Baina ez doguz beti gauza barriak bilatu behar. Benetako giza-sinboloak gitxi dira eta ez dira aldatzen: janaria, sua, ura, etab. Beste ezer baino lehen gauzen sakontasuna bilatu. Hasierako kristinauek beti bardina ospatuko eben, ohiturakeriaz. Baina hori ez zan eragozpen bat inork baino hobeto ospatu ahal izateko.

**2.3.7.** Alkartean eta ospakizunean abadeak daukan garrantzia gitxitu egin behar da, benetako parte hartzea egon daiten. Ez dogu "modeloen igaro-bide" bat sortu behar, baina taldeek eta elizkizunean parte hartzen dabenek eginkizun desberdinak bete behar dabez: harrerea, irakurleak, abeslariak, eskaintzak, diru-batzea, etab., abadeagaz batera mezea prestatu ondoren.

**2.3.8.** Eukaristia ez diran beste ospakizun batzuk taldean egin eta taldetik kanpo ere eragin. Batez ere, alkarregaz, talde lez, otoitz egin. Ospakizunetarako heldutasuna lortuko dozue eta eukaristiaren esanguraz hobeto jabetuko zaree.

**2.3.9.** Eta umeen edo gazteen mezak zer? Izatez, eukaristia danona da, baina kasu batzuetan eta irakaspen lez ospatu daitezke. Egokia da "talde txikiko" eukaristiak ospatzea eta ezinbestekoa da talde haundiagaz, parrokia osoagaz, parte hartzea. Gogoratu egizue benetako eukaristia hezitzailea ebanjelioa erradikaltasunez bizi dauan KRISTAU ALKARTE ABERATS ETA PLURALAK zuzen ospatutakoa dala. Hau da umeek, gazteek, nagusiek, kanpokoek eta bertakoek hobeto ulertzen dabena.

### Ezinbestekotasunari buruzko oharra

Elizak eukaristian partehartzearen ezinbestekotasuna bere garrantzia azpimarratzeko ezarri eban. Baina eukaristia ezinbestekotasunetik planteatzeak ez dauka zentzurik. Bihotz barritutako kristinauak eukaristia ospatzeko beharrezana dauka, nahiz eta batzutan astun egin. Ezin dogu itzi "gogoa daukadalako" edo "ez daukadalako gogorik". Ospakizun honetan parte hartzen badogu, baldintza egokienetan ez bada ere, Jesusi, bere erreinu-egitasmoari, alkarteari eta Elizari gure maitasuna erakutsiko deutsegu. Gure fedea sakon-sakonekoa, bihotz-bihotzekoa dala adierazoko dogu.

## 3.- LITURJI-IKASKETA

### 3.1.- Sarrerako erritoak

Kristinauek **alkartzeko** ospatzeko eta komunioan bere "Elizea" osotzeko

*"Jaunaren egun bakoitzean batuta, zatitu ogia eta eskerrak emon, gure pekatuak autortu ondoren, zuen eskaintza garbia izan daiten" (c.14)*

beharrezana sentitzen dabe euren fedea bizitzeko. Egia esan, Jaunak berak deitu eta erakartzen ditu.

**Prestaketa-errito** batzuk aintza eta abadearen otoitza.

dagoz: sarrerako abestia, abadearen agurra,

Sarrera-atal honen **helburuak** honeek dira:

- Eukaristi batzarra osotzen dabena batzea
- Bihotz barritzea eta adiskidetzea eragitea
- Berbearen mezua entzuteko eta onartzeko girotzea.

Azpimarratzen doguna:

\* **Kurutzearen seinalea:** ez da otoitzerako atari huts bat, izatez bera da otoitza eta fede autormena.

\* **Damu otoitza:** ez da penitentzi ospakizuna, baina **bihotz-barritzerako** jarrera pizten dau eta beharrezko parkamena eta bihotz barritzea eskaintzen ditu. *Didaché*-an ere eskatzen zan

Kristinau guztiok dakigu etenbako bihotz barritzea behar doguna. San Paulok ere esaten eban:

\* **Aintza:** Ospakizun-buru izan behar dauan goratzarrea eta eskerrona da.

### 3.2.- Berbearen liturjia

"Liburu Santuak garrantzi handia dauka liturji ospakizunean", esaten dau Batikano Ilak (S.C. 24)

"Gero homiliak aztertzen dituan irakurgaietan, **Jaungoikoak bere herriari berba egiten deutso**, berrerospenaren eta salbamenaren misterioa argitzen deutso, eta janari espirituala, Kristo bera, eskaintzen deutso, bere berbeaz fededunen artean **dago**" (Ordenazio Orokorra Meza-Liburu Erromatarra, 33)

Berbearen bidez Jaungoikoari barriro ere bere maitasuna adierazoten izten deusagu eta maitasun honek gu geu jantzi, eraldatu eta bere lekuko egitea baimentzen dogu.

Garrantzitsua da Kristo gure artean dagoala eta bere ogiaren banketera gonbidatu baino lehen bere berbearen banketea eskaintzen deuskula onartzea.

**Homilian** irakurgaien esanahia sakontzen da eta fededunen bizitzara eroaten da.

Atal honi amaierara emateko **federe**-erantzuna, otoiitz unibertuala edo **fededunen otoiitza** egiten da eta bertan Elizaren eta gizon-emakume guztien beharizanak aurkezten jakoz Jaunari.

### 3.3.- Eukaristi-liturjia

Eukaristi-liturjian Jesusek egindako keinuak errepikatzen dira altara gainean: ogia eta ardoa salbamen-egitasmoagaitik Berbogatik -eta Espirituaren gorputz eta odol bihurtzen dira. komunioa dago berrerospenaren

Liturjiako atal honek bi prestaketa-une garrantzitsuak konsagrazinoagaz, aurretik

*"Horregaitik, behar dan lez Jaunaren ogia jaten eta kopatik edaten dauana errudun bihurtzen da, Jaunaren gorputz-odolak profanatzan ditu-ta. Aztertu bei, bada, nork bere burua, ogitik jan eta kopatik edan aurretik"*

(1Kor 11,27-28)

azken afarian esandakoak eta dira. Eskaintza batzuk aurkezten uragaz. Eukaristi-plegaria bat dago, Jaungoikoari eskerrak emateko. eraginez- eskaintzak Jaunaren Azkenean ogia zatitzen da eta frutuez gozatzeko.

ardatz nagusi ditu eta bien aurretik dagoz: **eukaristi-plegaria** dohainak aurkezten diralarik;

eskaintzan parte hartzea komunioagaz, aurretik prestaketa egokia dago Kristo hartzeko.

### 3.3.1.- Dohainen prestaketa

"Eukaristi-liturgiaren hasieran Kristoren gorputz eta odol bihurtuko diran dohainak altarara eroaten dira. Lehenengo eta behin, eukaristi-litugia ororen gunea dan, Jaunaren altarea edo mahaia prestatzen da... Gero eskaintzak ekartzen dira: goratzekoa da ogia eta ardoa fededunek aurkeztea" (O.G.M.R.,4)

Orain ez da "ofertorioa" esaten, "dohainen aurkezpena" baino aurkezpen horrek ez daukalako sakrifizio itxura. Otoitzetan **bedeinkapena** agertzen da batez ere: "Bedeinkatua zu, Jauna..." Jaungoikoak bere dohainekin bedeinkatzen gaitu eta guk bere dohainengaitik eta bere dohainekin bedeinkatzen dogu.

\*Eskaintzen dogun **ogia** Jaungoikoaren dohaina da eta gure beharraren frutua.

\* **Ardoa** jaia eta oparia da; indarra eta maitasuna da.

#### + Alkarbanatzeko dohainak

"Dirua edo beste eskaintza batzuk emon daikeguz behartsuentzat edo Elizarentzat (O.G.M.R., 49) Beharrezkoa da. Jaungoikoak nahiago dauan eskaintza behartsuenei egiten deutseguna da. Holan ulertu eban, ogia zatitzerakoan, ondasunak behartsuekin banatzen ebazan, Elizak. San Ziprianok, III. mendea, behartsuentzako "sakrifizioa" ekarri barik ezin dala Sakrifizioa ospatu esaten eban. Ezin da eukaristiako ogia zatitu bizitzako ogia banatzen ez bada.

### 3.3.2.- Eskerrak emoteko otoitza

Plegaria hau mezaren ardatza da atalik sakratuena. "Hemen daukagu ospakizunaren gunea eta gailurra, eukaristi-plegaria, **eskerrak emoteko eta santutzeko** otoitza. Abadeak eskerrak emoteko otoitzean herria gonbidatzen dau bihotza Jaungoikoarengantz jaso dagian...Otoitz honen bidez fededunen batzar osoak Kristogaz bat egiten dau Jaungoikoaren gauza miresgarriak hots egitean eta sakrifizioaren eskaintzan" (O.G.M.R., 54)

Eskerrak emoteko otoitz hau judutar herriak sarritan esaten eban goratze-otoitzetik dator, bere izena "Berakah" zan eta ondorengoa bere egitura:

\*Jaungoikoa **goratzea** bere lanengaitik eta eskerroneko gomutagaitik.

\*Bere lorpenak gaur ere errepikatu daitezala eta bere babesaren emoten jarraitu dagiala Jaungoikoari **eskatzea**.

\*Jaungoikoa berriz **goratzea**, bere herria bedeinkatzen jarraituko dauakoan.

Ebanjelioetan agertzen dira antzerako otoitzak (cfr. Lk. 1,45-46; 10,21; Jn. 11,41-42) Azken Afarian ere Jesusek Jaungoikoari bedeinkapen edo esker oneko otoitza esaten deutso, baina bere zentzua guztiz aldatuko da.

#### + Eukaristi-plegariaren zatiak

Meza-liburu Erromatarrak plegaria bat baino gehiago dakar, guztiak ederrak eta sakontasun haundikoak diralarik. Ondorengo elementuez osotuko da:

\***Prefazioa**, hitzez hitz "aurreko ekintza" dana, sarrerako ataria lez. Jaiaren arabera, salbamenaren historiaren zati batzuk gogoratzen dituan, Aita Jaungoikoari zuzendutako bedeinkapena da.

\***Goresmena edo Sanctus-a**, prefazioaren azken goratarrea da, batzarraren pozezko goresmena, zeruan Jaungoikoari zuzentzen jakon goratarre-liturjiari lotzen jakona.

\***Epiklesia**, hitzez hitz "deia". Abadeak, eskuak dohainen gainean zabaldua, Espiritu Santuari dei egiten deutso, konsakratuta geratu daitezkan eta jasotzen dabezanen salbamenerako izan daitezkan. Bigarren epiklesi bat ere badago, eta bertan Espiritu Santuari dei egiten jako alkarte indartu eta karitatean batu dagian. Espiritua da bizia emoten dauana.

#### + Azken Afariaren kontakizunak edo konsagarziorako berbak

Jesusen berbak eta keinuak errepikatzen doguz, adierazoten daben salbamen-gertakizuna barritzatuz eta gaurkotuz. Orain dauka zentzu osoa Jesusek bere Elizari itzi eutsen oroigarriak.

- \***Anamnesia** edo "gomuta". Konsagrazioko berben ostean, batzarrak orain gauzatzen dan misterioa aldarrikatzen dau: Jesukristoren heriotza eta biztuerea, eta bere aintzazko etorrera eskatzen dau. Abadeak bere otoitzean gogoratzen dau egi bihurtzen dan hau: oroigarria.
- \***Eskaintzaria**. Hau da mezatako benetako "oparia", Aitari, Espirituarengan, Jesusen sakrifizioa eskaintzen deusagunean. Jesukristo, biktima santua, eskaintzerakoan beragaz eskaintzera gonbidatuak gara batasuna egin daiten.
- \***Bitarterreguak eta santuen gomuta**. Lurreko Eliza eta zerukoaren arteko komunioa adierazoten dabe. Elizaren alde (bereziki Aita Santua, gotzainak eta asmo partikular batzuk aipatzen dira) eta gizateri osoaren alde eskatzen da. Hildakoen alde ere otoitz egiten da, guztiak salbamenaren osotasunera heldu daitezcan.
- \***Azken doxologia**, hitzez hitz "gorespina". Aintzazko goratarrea da Jaungoiko Aitari, Kristogaitik, Espirituarengan. Goresmenaren gailurra da, hirutasunezkoa eta kristozentrikoa. Konsakratutako dohainak jasotzen dira une honetan.

Eta batzarrak **amen** esanaz erantzuten dau. "Amen" hori Elizak ospatu eta bizi dauan guztiari emoten deutson baietza da; onarpena, harrerea eta uste osoko eskaintza da.

### 3.3.3.- Komuninoa

"Eukaristi-ospakizuna pazko-jana danez, Jaunaren eskakizunari jarraituz, janari espiritual lez jasotzea komeni da. Horri begira dagoz zatiketa eta prestaketa-erritoak" (O.G.M.R., 56)

- \***Gure Aita.** Gure prestaketarako otoitzik egokiena da. Ezin gara Jauna hartzera hurreratu eguneroko ogia banatzeko eta anai-arrebak parkatzeko prest ez bagagoz.
- \***Bakearen errittoa.** Anaitasuna eta harrerea erakusteko, Kristoren bakea gizateri osoari heldu dakion.
- \***Ogia zatitzea.** Jesusek azken afarian egin ebana egiten dogu. Alde batetik, Kristoren eskaintza adierazoten dau; bestetik, bizi-ogi hau jasotzen daben guztien batasuna. Askoren batasuna gorputz bakar baten (cfr 1 Kor 10,17)
- \***Komuninoa.** Hauxe dogu atalik nagusiena. Komuninoaren bidez eskaintza-bazkarian parte hartzen dogu Kristogaz dogun batasunak iraun dagian, eta holan baztarketa eta bakardadea, norberekeria eta geldotasuna gainditu dagiguzan. Jaunartzen dauana ez dago bakarrik, Kristogan dago eta Kristo beragan dago; eta, era berean, Kristogaitik anai-arrebekin gagoz.

Komunino ostean gorespina eta eskerrona adierazo behar doguz. Isiltasuna, abestia, salmua edo eskerrak emoteko testuren bat tartekatu daitezke, otoitz egokiagaz amaitzeko.

### 3.4.- Agurrerako erritok

Errezak eta laburrak dira: gorespenerako eta eskerronerako isilunea egin eta gero, abadeak amaierako otoitza esaten dau eta batzarra bedeinkatu eta agurtzen dau, "bakoitza bere eginkizunetara itzuli daiten, Jauna goratuz eta bedeinkatuz" (O.G.M.R. 57)

Gure eukaristia gurutzearen seinaleaz eta Hirutasunari dei eginez amaitzen da. **Bedeinkapen** adierazgarria da: "meza amaitzerakoan ateak zabaltzen jakoz eskerronen jarioari, goratutako gorputz baten indarrari. Ateak kurutze itxurako bati men egiten deutso eta hirutasunezko doinuaz zabaltzen da" (Luis A. Schökel, **Gogoeta biblikoak eukaristiaz**, Sal Terrae, 1987, 140 orr.)

Eukaristia bizitzara luzatzen dala jakin behar dogu. Ezin doguz banatu kultua eta beste ekintza guztiak. "Zoaze Jaunaren bakean" esaten danean, ez da ospakizuna ahazteko, baketik eta bakearen alde konprometitzeko deia da. Horrexegaitik sortu behar dira beharrezko konpromezua erraztuko daben isiluneak.

EUKARISTIAREN LITURJIAREN EGITURA		
1. Hasierako erritok	Fededunak prestatzeko dira, Jaungoikoaren Berbea entzun eta eukaristia ospatu dagien	1. Meزابurua sartzea 2. Agurra altareari eta batzarrari 3. Damu otoitza 4. Erruki Jauna 5. Aintza 6. Eske-otoitza
2. Berbearen liturjia	Une honetan Jaungoikoak bere herriagaz berba egiten dau. Jaungoikoak berba egin eta herriak salmuak esanaz eta Berarengan uste osoa hotseginez erantzuten dau.	7. Lehenengo irakurgaia 8. Erantzun-salmoa 9. Bigarren irakur gaia 10. Txatala aleluiagaz 11. Ebanjelioa 12. Homilia 13. Kredo edo fede autormena 14. Herriaren otoitza
3. Eukaristi-liturjia	a) Dohainak eskaintzea	15. Ogiaren eta ardoaren eskaintza 16. Otoitzerako deia 17. Eskaintzei buruzko otoitza



	<p>b) Eskerrak emoteko plegaria eta konsagrazinoa</p>	<p>18. Hasierako alkarrizketa  19. Eskerrak emotea: prefazioa  20. Goresmena: Santu  21. Espiritu Santuari dei egitea (epiklesia)  22. Ikasbidearen edo konsagrazinoaren kontaketa  23. Herriaren goresmena  24. Kristoren nekaldia, heriotza eta berbizkundera gogoratzea eta gaurkotzea  25. Jesusen sakrifizioa Aitari eskaintzea  26. Bitartekotzak Eliztar guztien alde  27. Espiritu Santuaren batasunean, Kristok egindako Jainko Aitaren aintzaren azken aldarrikapena (doxologia)</p>
	<p>d) Komunioaren erritua Eukaristia bankete espiritual da</p>	<p>28. Gura aita  29. Bakea emotea  30. Ogia zatitzea. Jaungoikoaren Bildotsa  31. Komuniora gonbidatzea  32. Komunioa  33. Eskerrak emotea</p>
<p>4. Amaierako erritua</p>		<p>34. Agurra eta azken bedeinkapena  35. Azken agurra</p>



## II.- BIZITZA-AZTERKETAREN INKESTA

### IKUSI

Gure taldeak eta guk geuk eukaristiaren aurrean dogun jarrera aztertuko dogu.

- 1.- Deskribatu gustora bizi izan dozun eukaristia bat eta aspergarri egin jatzun beste bat.
- 2.- Aipatu zergaitik egon zinan gustora eta zergaitik aspertu zinan.
- 3.- Gazte askok eta askok kristinautzat daukee euren burua eta ez dabe aurkitzen arrazoirik eukaristian parte hartzeko. Zerk galerazoten deutso gazte bati eukaristian gustora egotea? eta zerk laguntzen deutso ospatzen gustora egoteko?
- 4.- Zuk zeuk, parte hartzen dozu Eukaristian? Zergaitik? Zeureganatu dozu bere esanahia? Zelan adierazoko zeunskio lagun bati? Entzuten dozu Jaungoikoaren Berbea? Kasurik egiten deutzazu eukaristi-plegariari? Komulgatzen dozu? Zergaitik?

### EPAITU

Epaitu aldian gauzak "Jaungoikoaren begiez" ebaluatuko doguz. Geure bihotzak zabalduko doguz Ebanjelioak berak ebaluatu gaizan, berba bizi horrek esaten deuskuna entzun dagigun.

Lk 24,13-35, "Emauseko ikasleak", testu irrikagarria irakurriko dogu. Azalpen txiki batek ere mesede egingo leuskigu.

Hasteko, **otoitzaldi luze bat** egin daikegu: gutariko bakoitza ikasleekin alkartzen da bidean, holan hiru izango litzatekez Emausera doazenak. Bide guztia egingo dogu: etsipenetik aurkikuntzara. Azkenean "bidean jaso zana eta ogia zatitzerakoan ezagutu genduala" kontatuko dogu.

Gero komentatu egingo dogu.

- 5.- Testuaren argira, Jesus lagun dogula bizi gaitkeez normalean eukaristian parte hartu barik?
- 6.- Zure parrokiako eukaristiari zeozer falta jako Emausekoaren antzekoa izateko? Deskribatu egizu.
- 7.- Zer behar dozu zuk eukaristia, Emauseko ikasleen antzera, begiak zabalik, bihotza sutsu eta Ebanjelioa hotsegiteko gogoaz, ospatzeko?
- 8.- Ariketa praktiko lez, arbelean edo kartulina baten hiru zutabe egin. Lehenengoan, guztion artean, parroki eukaristiak zelakoak izan beharko litzatekezan aipatu izenondoen bidez. Bigarrean horreek zuen alkarteari ezarri. Hirugarrean izenondo bardinak zuen buruei jarri.

## **EKIN**

9.- Epaitu aldiko azkenengo puntuan aipatutako ezaugarriak egi bihurtzeko zer egingo zendukee.

10.- Kristinau gaztea eta militantea zara, egizu egitasmo bat eta konpromezu bat eukaristiak zure bizitzan benetako garrantzia izan dagian.

11.- Bide barriak eragin parrokiako eukaristiak adierazgarriagoak, benetako otoitz guneak, gogoz parte hartzeko lekuak eta konprometituak izan daitezcan eta talde lez onartu.

### III.- GEHIGARRIA

#### EMOTEAREN ETA ALKARBANATZEAREN MISTERIOA

Eukaristia dohaina da Jaungoikoak emondako ituna eta Jesusek isuritako odola lez. Jaungoikoa gizon-emakumeen historian azaltzen da eta gertakizun horri izen bat emotekotan "dohain" berbea ezarriko deusagu. Jesus, ogia eta kopa emoterakoan, janarian emoten jaku beragana itzuli gaitzean.

Elizak, bere aldetik, bere Jaunarengandik eten barik jasotzen dauana emoten dau. Edo, hobeto esanda, ogia "alkarbanatzen dau". Horregaitik, hasieran eukaristiari kutsua emoten eutson "ogiaren zatiketa" esaerea, "ogia alkarbanatzea" esaereaz itzuli daitekela uste dot. Eta alkarbanatze hori agortu ezina da, ugaritutako ogiak izan ziran lez.

"Ogia alkarbanatzeak", eukaristiari eta eguneroko bizitzari lotu dakikeon esaerea, kristautasunak izan behar dauan komuniozko bihotzeko bizitza liturjiari lotzera gonbidatzen gaitu. Komuninoa dinoenak, bere bizitza emoten dauan Jesusegaz alkartzea dino, eta, beraz, alkartasuna anai-arrebekin multzoari zabaltzea.

Eukaristi-kultoa eguneroko zerbitzuagaz nahita lotzean, Lukasen testamentu-tradizinoak euren liturji-jarduerara anaitasunezko bizitzagaz lotu behar dabela esaten deutse fededunei.

Bestela, kultoak berak erakusten dau, bere osagarrien bitartez, fededunak Jaungoikoagaz eta bere hurkoagaz daukan hartuemon bikoitza: ogi bakar bat dagoanez gorputz bakarra osotzen dogu. Kopa bakarrak ere mahai-lagunen Jesusekiko eta euren arteko batasuna adierazoten dau. *Eukaristia ospatzea gizon guztien anaitasunezko batasuna onartzea da.*

Ondorioak argi eta garbi ikusten dira. Profeten benetako tradizinoak eta Jesusen irakaspenak esaten deuskuenez, Jaungoikoagaz eukitako alkarrizketak anai-arreben arteko zuzentasuna sortzen dau. **Kultoak, berez, ez dauka eginkizunik, karitatezko bizitzaren adierazpen sinbolikoa da, bere jatorrian (Jesus) eta bere ondorenean (Elizea).**

Zer esanik ez, liturjia-jarduerak jarraipen bat izan behar dau ogia alkarbanatzen jarraituz, hau da, zuzentasuna eraginez, munduko gosearen aurka borrokatuz, zapalduak gaitz guztietatik askatuz. Kultoa anaitasunezko bizitzaren bihotza izanda ere, ez da "gorenako" maila baten, "gailur" baten adierazpena: ez dago karitatezko bizitzaren gainetik, barruan baino, bizkorgarria da. Hau da eukaristi-misterioa ikusteko era zuzena.

(X. Leon-Dufour, *Ogiaren zatiketa*, Cristiandad Ed.,  
Madril 1983, 367-368 orr.)



## BIBLIOGRAFIA

- \*PRIETO, R., *Elizak bere fedea ospatzen dau* (Katekisten heziketa, 14 karpetea), SM 1991. 5. Liburutxo da eukaristiari zuzendutakoa eta erraza eta interesgarria da)
- \*CABIE, R., *Mezea, erraz-erraz*, CPL 1994. JOC-eko kontsiliario frantses baten liburutxo guztiz didaktikoa da.
- \*GOMIS, J., *Mezea, domekea, bizitza*, CPL 1993, Emaus bilduma, 3. zkia.
- \*ALDAZABAL, J., *Eukaristiarako kakoak*, CPL Dosierrak, 1984
- \*SCHÖKEL, L.A., *Eukaristiari buruzko gogoeta biblikoak*, ST 1986.
- \*GESTEIRA GARZA, M., *Eukaristia, komunino-misterioa*, Cristiandad 1983
- \*Nazioarteko XLV. Eukaristi kongresua, *Eukaristia eta ebanjelizazioa*. Oinarrizko testua eta prestaketa pertsonalerako biderapena, Paulinas 1992
- \**Sakramentuak eta langile-militantzia*, Langileen Barriak Kuadernoak, HOAC ed, 1. zkia., 1992.ko maiatza.